

Kanpina


Oporrak iritsi dira eta kanpinera zoaz. Beharko duzunarekin zerranda aspergarri bat egin ordez, asmakizunetara jolas zaitezke. Estali ezker edo eskuineko irudiak! Zer eramango duzu mobilian? Zer, lo egiteko? Nola sukaldatuko duzu? Zer egingo duzu argindarrik ez badago?

Kanpina
Jeanne Ashbé.
Tartalo, 2023
978-84-19696-05-2
Album ilustratua
+2

Bila asko pila!

Eta ikusiko duzu uste baino antz handiagoa duzula animaliek. Eta animaliek uste baino antzekotasun gehiago dituztela zurekin. Ireki begiak parez pare eta bagoaz bilaketara jolastera, animalia artera. Zein ote da tximinorik indartsuena? Eta txakurrik gozozaleena? Ipurtargirik lotiena? Eta, zein da haurrek kuttunena, panpoxena eta poxpoliñena?

Nor ote da?
Claudia Bielinsky. Itzul.: Patxi Zubizarreta.
Ibaizabal, 2023
978-84-1370-457-9
Jolas liburua
+4



Berezi egiten gaituena

Zein da jirafa baten ezaugarri bereziak? Zerk egiten du lehoia lehoi? Zerk bereizten du puma bat beste animalietatik? Argi zooru doa amarekin eta animalia guztiak ditu atsegin, denak dira berezi. Argi ere berezia da eta bakarra, baina ez daki. Askori gertatzen zaigun bezala. Baina, zerk egiten du hain berezi? Non bilatuko dugu hain berezi egiten gaituena? Geuregandik kanpo edo gure barnean?

Zu bai zu, Argi!
Gabriela Keselman eta Natalia Colombo.
Itzul.: Patxi Zubizarreta.
Ibaizabal, 2023
978-84-1370-354-1
Album ilustratua
+4



Animalia bihurtu gaituzen



Atera dezagun gure alde basatia eta mugitu dezagun gorputza animaliek bezala: burua jiratu pinguinoen erara, lepoa okertu jirafen gisara, txalo egin foken antzera, bularra kolpatu gorilen modura... Argi dago, piztiak eta gu ez gaude elkarrengandik hain urrun. Alderantziz jolastu eta animaliei eskatuko bagenie personok egiten duguna egiteko? Zer eskatuko zenieke? Egingo al lukete?

Burutik behazetara
Eric Carle. Itzul.: Manu López Gaseni.
Pamiela-Kalandraka, 2023
978-84-9172-340-0
Album ilustratua
+4

Lanpetuegi al zaude jolasteko?

Oso langileak al gara? Eta animalien artean, zein dira langileenak? Armiarma da horietako bat, amaraun ederrak iruten aritzen delako. Lanean ari den bitartean animaliak datoz bisitan. Baina lanpetuegi dago inorekin jolasteko. Zu ere lanpetuegi egoten al zara? Zer egingo zenuke zu armiarma bazina eta inguruko lagunak beekka, iiiika zurekin jolastera datozten animaliak? Ilunpetan jolas zaitezke, liburuko irudiek argia egiten baitute. Beti ere lanpetuegi ez bazaude.

Armiarma oso lanpetuta dago
Eric Carle. Itzul.: Manu López Gaseni.
Pamiela-Kalandraka, 2023
078-84-9172-331-8
Album ilustratua
+4



Sirena bat naiz


Sirenak agurtu ditut trenean, nire burutazioetan ikusi ditut, eurekin dantzan egiten dut, etxean sirenaz jantzi dut neure burua. Eta hara! Amonak ere zeharo harritu nau, sirenaz beteriko leku batera eraman nauenean! Munduko pertsonarik zoriontsuena izan naiz bertan! Adi! Sirenak edozein lekutan aurkitu ditzakezu, probatu, adi egon, erreparatu ondo, ireki begiak, eta laster leku guztietan ikusten hasiko zara.

Sirenak
Jessica Love. Itzul.: Miren Agur Meabe Plaza.
Kókinos, 2023
978-84-19475-29-9
Album ilustratua
+4

Gaur zopa afaltzeko!

Ezagutzen al duzu Mafalda? Quino umoregile grafiko argentinarrek sortu zuen komikiko protagonista da. Istoria hau irakurri aurretik gonbidatzen zaitugu Mafalda ezagutzera, galdetu zure gurasoei, izekori, ikertu, joan etxeko edo herriko liburutegira. Eta Mafalda aurkitzen duzuean eta bere istorioak irakurri, jada ez duzu liburu hau irakurtzeko denborarik edukiko. Eta baldin baduzu, jakin liburu honetako barazki zopan ile bat aurkituko dutela; ez bakarrik hori, baita euli bat eta kapelu bat ere. Zopa surrealista inondik ere, gaurko afariko!

Ile bat zopan
Alex Nogués eta Guri. Itzul.: Garazi Arrula Ruiz.
Txalaparta, 2023
978-84-19319-36-4
Album ilustratua
+4



Nola aurre egin umorearekin larrialdi bati



Udako egun zoragarria da eta familia osoarekin zoaz igerilekura! Hartu bainujantzia, flotagaiua eta eskuoihala. 166 eskailera dituz igerilekura jaisteko. Lehen bainua zoragarria izan da baina bat batean larrialdi txiki bat! Bazoaz behetik gora berri, gora eta gora, 166 eskailera daude komunera iristeko! Oooo, baina kakalarrria joan egin zaizu berriro eta berri zehar zoaz; berriro gora, berriro behera... Igerileku eguna abenturaz betetako eskailera bidaia bihurtua! Baina nork ez du izan inoiz larrialdi bati!

Kakalarrria!
Alessandra Requena eta Guilherme Karsten. Itzul.: Nahikari Gabilondo.
Ibaizabal, 2023
987-84-1370-455-5
Album ilustratua
+6

Behar duguna baino ez!

Katagorria eta zuhaitza lagunak dira eta elkar zaintzen dute. Hark gustuko ditu pinaburuak, baina gutxika hartzen dizkio zuhaitzari. Zuhaitzak ahulak baitira eta denak hartzea gehitxo litzateke. Zuhaitzaren adarrak orratz finez beteta daude baina horiek ere gutxika jaten ditu, pasa gabe. Sua egiteko ere adarrak txikiak erabiltzen ditu solilik... Katagorriak ere ahulak dira eta zaindu egin behar dira. Eta zuk zaintzen al duzu natura? Zer egiten duzu horretarako? Behar duguna hartzen duzue edo gehitxo?

Gehitxo
Olivier Tallec. Itzul.: Garazi Arrula Ruiz.
Txalaparta, 2023
978-84-19319-61-6
Album ilustratua
+6



Adi! Gizakiek ez dakite jolasten ezta hitzik egiten ere!

Gure eguneroko bizitza porlanezko eraikinez, autoz eta presaz beteta dago. Istoria honetako protagonista basoan hazi da eta txoriek erakutsi diote hizketan; hartzek jaten; azeriek jolasten. Egun batean bera bezalako animaliek harrapatu eta zibilizazioa eramango dute. Gizaki horiek dena egiten dute gaizki: ez dute jolasten, ez dakite hitzik egiten, ez dute ondo jaten. Nor bizi da erosoago? Zer da basati izatea? Zer nahiago zenuke zuk: mugarik gabeko bizi basatia edo porlanezko zibilizazioa?

Basati
Emily Hughes. Itzul.: Garazi Ugalde Pikabea.
1545 Argitaletxea, 2023
978-84-127245-0-9
Album ilustratua
+6



McCallagan jeneralaren agindupean


Koldarrak zirela pentsatzen zuen, eta haiek bultz egin zioten igerilekura. Ez zen IRTEN! Hii egin zuten jenerala? Zenbat denbora egon daiteke urpean hil barik? Liburuak ireki behar duzu jakiteko, nahikoa da marrazkiak begiratzera erantzuna jakiteko. Bukararik ere has zaitezke liburuak irakurtzen, eta seguruenik sorpresa hartuko duzu izenburuarekin. Zein izenburu jarriko zenioke zuk?

Oiloak uretara!
Pablo Albo eta Rocio Araya. Itzul.: Amaia Apalauza.
A Fin de Cuentos, 2023
978-84-19684-08-0
Album ilustratua
+6

Isilik egon zaitez!

Askotan esaten digute EGON ISILIK! Ez dugu hori entzutea atsegin ordea. Inoiz aukeratu al duzu isilik egotea gustuko duzulako? Isiltasunaren dohainak ezagutu nahi badituzu, liburu honetan duzu aukera paregabea. Ez zara gehiago isiltasunaren bisitarekin bakarrik sentituko.

Bisita
Núria Figueras eta Anna Font. Itzul.: Joxe Irazu.
Pamiela-Kalandraka, 2023
978-84-9172-358-5
Album ilustratua
+6



Animalien sabeleko sekretuak arakatzeko gida

Guk bezala animaliek gogokoago dituzte jaki batzuk beste batzuk baino. Belarjaleek, haragijaleek, intsektujaleek eta orojaleek gutziak dituzte. Nork jango du zizare izozkia? Zein animaliak atsegin ditu igel madalenak? Eta zizare piruleta eta bare pastela? Zuk jango al zenituzke? Zein dira zure gutziak? Animalia bakoitzaren sabelek agerian uzten ditu bere dieta eta menuren sekretuak.

Ezetz asmatu zer jaten dudana!
Katerina Gorelik. Itzul.: Bakun S.L. (Imanol Salegi Urbieto).
Ibaizabal, 2023
978-84-1370-451-7
Jolas liburua
+6



- 1 Kanpina
- 2 Nor ote da?
- 3 Zu bai zu, Argi!
- 4 Burutik behazetara
- 5 Armiarma oso lanpetuta dago
- 6 Sirenak
- 7 Ile bat zopan
- 8 Kakalarrria!
- 9 Gehitxo
- 10 Basati
- 11 Ezetz asmatu zer jaten dudana!
- 12 Oiloak uretara!
- 13 Bisita
- 14 Tximeleta haurra
- 15 Lore txiki bitxia
- 16 Cirkus Ulice

- 17 Mihi-puntaren puntan
- 18 Nondik sortzen da haizea?
- 19 Talo eta Lili barraketan
- 20 Inmigranteak
- 21 Josi eta Josi
- 22 Ezin ezetz esan
- 23 Gora gure alkate jakintsua!
- 24 Tentelontzia
- 25 Nork hil du trikua?
- 26 Bikini
- 27 Ez duzu sinetsiko

Gida hau esku artean baduzu, **GALTZAGORRI** elkarteak 2018tik martxan dituen Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegietan parte hartu duen irakasle edo bibliotekaria zarelako da. Edota agian euskarazko haur eta gazte literaturaren marea biziak tentatu duen igerilaria. 2024an egingo den egitasmo honen zazpigarren edizioan ere eskolako bitartekariak haur eta gazteak irakurketara zaletzeko materiala eta estrategiak transmititzen ahalginduko gara. Baina konturatuko zinez, esku artean duzun gidan, iruzkinen ordez, gu ere liburuaren itsasoan sartu, jolasean hasi eta zipiritinak barreiatzeari ekin diogu: jolas proposamenez betetako testu hauek zureganaino iristea nahi dugu, zu zipiritinduz, gertu dituzun haur eta gazteak bustitzera ere iritsiko direlakoan. Zipiritindu ditugu, urtero bezala, kalitate literarioa aitortu zaion Euskal Haur eta Gazte Literaturako hainbat izenburu, gehienak argitaratu berriak eta genero ezberdinak. Nazioarteko hitzik gabeko aleak ere topatuko dituzu, baita bestelako formatuetako fikzioen tantak ere. Flotagaiu bat eskaintzen dizugu, beraz, literatura bainu atsegin baterako. **Bustialdi on opa dizugu!**
<https://www.libbygaltzagorri.eu/orm/fomazioa/irakasleentzako-lantegiak>

Donostia, 2024ko martxoak
© Testuak: Saraa Bikandi, Mireia Delgado, Mari Garcia eta Izaskun Jauregi.
© Irudiak, diseinua eta maketazioa: Lorena Martinez. Software librearekin ilustratua eta maketatua.
© Argitaratzailea: Galtzagorri elkarteak. galtzagorri@libbygaltzagorri.eu
Inprimaketa: Itxaropena S. A.
L.G.: D 287-2024




ZIPIRITINAK



Haurrak liburuz bustitzeko eginak

2024



Nondik dator soinu hori?

Tximeletaren hegoak dira. Imajinatu dezakezu zer egin dezakeen tximeleta haur batek? Landareetatik zintzilikatu, tronparekin lore politenak probatu, perfume gozoenak usaindu, jendearen sekretuak entzun... Zerrenda amaigabea osa liteke irudimenari hegan egiten utziz, eta ondoren lagunei kontatu. Behin aireratu gero, imajinatu dezakezu zer egingo zenukeen suge haurra bazina? Eta oilo haurra bazina? Azken horien berri zehatzago izan nahi baduzu "Oiloak uretara!" istorioa irakurri dezakezu!

Tximeleta haurra
Marc Majewski. Itzul.: Ibon Plazaola.
Alberdania-Ediciones Ekaré, 2023
978-84-9868-785-9
Album ilustratua
+ 6

Zuk zein koloretakoa ikusten duzu?

Gertatu zaizu inoiz zuk gauza bat kolore batekoa ikustea eta besteek desberdin? Eta horrek ekartzen badu eztabaida, zer egiteko gogoia ematen dizu? Korrika irten, edo eztabaidatu eta zurea defendatzea? Edozein ere, pertsona bakoitzak du barruan lorea eta bakoitzak dauka bere kolorea. Elkarrekin lanean koloreak nahastu egiten dira.


Lore txiki bitxia
Kitty O'Meara. Quim Torres. Itzul.: Bakun S. L. (Maddalen Arzallus).
Ibaizabal, 2023
978-84-1370-449-4
Album ilustratua
+ 6



Pertsona bat, istorio bat

Zirkura joan al zara inoiz? Eta kaleko zirkua ezagutzen al duzu? Zenbat kolore eta pertsonaia mota egoten da zirkuan? Eta zuk, zenbat pertsona mota ezagutzen dituzu? Zein dira bakoitzaren ezaugarriak? Zer itxura dute? Pop-up liburu honetan ihundaka orrazkera, arropa, animalia, poltsa eta maskotekin jolas zaitzake, pertsonaia sortzera. Orri bakoitza lau zaitan banatuta dagoenez, mila aukera ditugu pertsona mota ezberdinak irudikatzea. Sortutako pertsonaia dibertigarri bakoitzak zer istorio duen kontatzera ausartuko zinateke?

Cirkus Ulice
Dagmar Urbánková.
Baobab, 2012
978-80-87060-63-6
Pop-Up liburua
+6



Igarkizun bat eguneroko menuan!

Imajinatzen al duzu asmakizun fabrika bat? Ba hauxe da Xabier Olaso bere sukaldean daukana. Eta eguneroko menuan asmakizun batera gonbidatzen gaitu. Prestatu zure menua, nahi duzuna aukeratu dezakezu. Beti ere postrea atzealdean aurkituko duzu. Eta horrekin gutxi badaukazu, bukaeran jolastu dezakezu musean, saguak harrapatzea edo sokatiran.

Mihi-puntaren puntan
Xabier Olaso eta Higinia Garay.
Elkar, 2023
978-84-1360-153-3
Asmakizun liburua
+6



Nora doaz ikasitakoak?

Ikasitako gehienak ahaztu egingo baditugu, orduan, zertarako ikasi? Eskolan erakusten digutena batzuetan gustuko dugu, baina, askotan, ditugun galderei ez diete erantzuten. Akaso inoiz gure zalantzak argituko dira, baina momentuz inork ez daki esaten nondik sortzen den haizea. Galdera horren erantzuna jakin barik hilko al gara?

Nondik sortzen da haizea?
Xabier Mendiguren eta Mirari Sagarzazu.
Elkar, 2023
978-84-1360-303-2
Ipuin ilustratua
+6



Zer izango ote da?

Zer izango ote da irakasleak bihar gelara etorriko dela esan digun hori? Irakasleak hitz ezezagun bat bota digu, eta ez dakigu bere esanahia. Denetik asmatu dugu: estralurtar bat, karameluak, jateko zerbait, jolasteko proposamen bat? Galdera asko eta asko egin osten, hurrengo egunean, beste gertakari batek hitz ezezagunaz ahaztuaraziko gaitu.

Inmigranteak
Marcelo Simonetti eta Maria Giron. Itzul.: Joseba Sarrionandia.
Pamiela-Kalandraka, 2023
978-84-9172-354-7
Album ilustratua
+6



Barrakak jarri dituzte!

Krispetak, dardoak, bola jaurtiketa, gozokiak, litxarrerriak, atrakzioak, zabu hegalaria, errusiar mendia... Zein duzu gustukoena? Beldurra pasatzeko prest al zaude? Gauza berriak probatzeko irrikan zaude (edo ez?), zure aurpegia ikus dezaket; Talo eta Lili bertan aurkituko dituzu, barraketan, eta borroketan. Denok ez baititugu gauza berberak gustuko, edo batzuetan gauza bera nahi dugu.

Talo eta Lili barraketan
Matthew Cordell. Itzul.: Bakun S. L. (Ametz Santxex Munain).
Ibaizabal, 2023
978-84-1370-482-1
Ipuin ilustratua
+6



Gehienek badakite

Eta zuk ba al dakizu zergatik ateratzen garen kalera martxoaren 8an? Martxoak 8aren historia jakin nahi baduzu irakurri Klararen istorioa eta Emakume Langileen borrokaren hainbat pasarte ezagutuko dituzu. Eta bestela jarraitu dezakezu martxoak 8an kalera iritelen, atzean duen historia ezagutu barik; baina jakin zure gelakide gehienek badakitela.

Josi eta josi
Itziar Moreno Martinez.
Txalaparta, 2023
978-84-19319-38-8
Ipuin ilustratua
+8



Bai, Bai eta Bai!

Denari bai! Pentsatu dezagun momentu batez "Bai" esan dezakegula soilik; egin dezagun aproba egun batez bada ere eta guzti-guztiari "Baietz" erantzungo diogu. Zelan joan da? Zein bitxikeria gertatu dira? Zenbat denbora iraungo zenuke denari "Bai" esaten? Aputsu bat egingo al zenuke?


Ezin ezetz esan
Mariasun Landa eta Andrea Prosper Morán.
Erein, 2023
978-84-9109-915-4
Eleberria
+8



Tomate landare baten bidaia

Txantxa batekin hasten da istorio hau: tomate landareak ematen dituen fruituak hamahirura iristean, zenbatzen dituen desageritu egingo da bat-batean. Animatuko zinateke *round trip* honetara sartzen? Umorea, ironia eta kritika aurkituko ditugu tentelen istorio honetan. Baina gu ez gara tentelak eta konturatu gara ilustrazio hauetan artearen inguruko erreferentzia asko dagoela. Beraz, ezkutaketa jolas batean murgilduta bukatu dugu. Eta bukaeran, gainera, laga dituzten pisten emaitzak topatu ditugu.


Tentelontzia
Ana G. Lartitegui. Itzul.: Juan Kruz Igerabide.
A Fin de cuentos, 2023
978-84-19684-02-8
Album ilustratua
+10



Alkateak arazoak sortzen ere badaki

Alkatez aldatu nahi al duzu? Edo daukazu arazoak? Kontuz! Ondo pentsatu, badira eta inguruan alkate zoro batzuk imajinatu ditzakezuen erabaki harrigarrienak hartu eta zure herria hankaz gora jartzeko gai direnak. Pentsatzen jarrita, oso dibertigarria behar du izan halako alkate zoro bat edukitzeak! Baina halako alkate batekin arazo baten konponbideak beste arazo bat ekar dezake, eta azken horrek beste bat. Adi nori emango diozun botoa!

Gora gure alkate jakintsua!
Txabi Arnal Gil, Edu Zelaieta Antza eta Belatz.
Elkar, 2023
978-84-1360-304-9
Eleberria
+8



Detektibe bila gabiltza

Trikua hil dute eta pista desberdinen arrastoa jarraitu beharko dugu. Pozoiuta hil al da? Ehitzariren batek akabatu al du? Prestatu zure lupa, zure koaderno eta goazen trikuaren inguruan gauzak ikastera.


Nork hil du trikua?
Katti Olaizola Gabirondo, Jon Patxi Aiausti Iturbe eta Paul Caballero.
Sua Edizioak, 2023
978-84-82-16-800-5
Ezagutza liburua
+ 8



Sandwich batean bizitzeak asko nekutzen du

Mota askotakoak daude eta asko probatuko zenituen: sandwich begetalak, bikiniak, arrautzarekin... Bikini-sandwich bat bezala sentitzea, ordea, erabat nekagarria da: erdian harrapatuta zaude, ez aurrera ez atzera. Orduan, zure lagunekiko ezinegona sentitu eta mina lasaitzeko pintza erabiltzen duzu; eta zerbait "txarra" egin ondoren, zure buruarentzako zigorik onena irala barkari batera bidal diezazuten dela uste duzu. Horiek dira, besteak beste, bikini sandwich batean bizitzaren sintomak.

Bikini
Garazi Kamio eta Alex Orbe.
Elkar, 2023
978-84-1360-367-4
Eleberria
+10



Lagun berri bat!

Egin nahi baduzu, eskolan topatu dezakezu edo zure auzoan, istorio honetako protagonista den Jonak bezala. Baina egia esango dizugu: liburu honetan ere aurkituko dituzu. Eta ez bakarrik Jon eta Samira, haren lagun istorio-kontalari berria. Idazlea ere lagun eder egiteko aukera duzu, bere lana ezagutzeko. Ez duzu sinetsiko, baina lan hau irakurrita istorio gehiago nahiko dituzu.

Ez duzu sinetsiko
Aintzane Usandizaga eta Asier Iturralde Gaston.
Txalaparta, 2023
978-84-19319-70-8
Eleberria
+ 10



BESTELAKO BUSTIALDIAK

Udaberri-biribilki eta guzti

Bietnamdar ilargi Urteberri afarirako otordua prestatu behar duzu. Eta gonbidatuak iristear daude. Afaria orientala da, beraz, tofua moztu behar duzu, aza garbitu, udaberri-biribilkiak poliki poliki bildu... Sorpresa goxo ugari topatuko dituzu eskuz marraztutako sukalde joko honetan.

Tet
Garatzailea: Playables GmbH, 2022
Apple Store (iOS) eta Google Play (Android)
+6

Edabe magikoak saltzen dituen dendaria zara

Baina ez zara bakarra. Beraz, tratu bikaina eman behar diezu bezeroei eta ahalik eta edabe gehien saldu. Gaur, Arimen Gaua da eta lana pilatu zaizu: kasualitatez, herritar guztiak nahi dute gaur izaki mitologiko bat izan. Bakoitzak bere apetia du: batzuk Herensuge, besteek Akerbeltz... Errezeta liburu magiko bat duzu, non argi jasota dagoen, marrazki eta guzti, pertsonaia horietako bakoitza izatera iristeko zer osagai nahastu behar dituzun eta nola. Adi jarraitu behar dituzue argibideak ordea, bezeroak oso zorrotzak dira!

Arimen Gaua
Garatzaileak: Barcina eta Eztulabadula, 2023
<https://barcinator.itch.io/arimen-gaua>
PCetan erabilgarri
+8

Hitzak sortzeko erronkari aurre egiteko prest daudenentzat bakarrik

4x4 hizkiko lauki batean 16 hizki agertzen dira. Hizki batzuk errepikatuta, eta bakoitzak puntu multzo jakin bat du egokituta. Letra horiekin hitzak osatu behar dituzu. Adi! Hitz bat osatzean, hizkiak desagertu egiten dira eta. Erroka hauxe da: ea zenbat hitz desberdin osa ditzakezuen hizki horiekin eta hortaz, zenbat puntu lortzen dituzun. Eguneroko errokkaz gain, orduro beste bat proposatzen da. Ausartuko al zara?

Hizki app
Garatzailea: Pello Altadill, 2023
<https://www.hizki.app/>
+10